

1

ILE-APAINDEGIKO lehen bezeroek ekarri zuten berria San Medárd baino astebete lehenago: Senkowitz ahizpak harrapatu zituzten goizaldean. Izoldako esparrutik egin zuten ihes neskazahar biek hilabete batzuk lehenago, biriketako gaixoentzako isolamendu-zentrotik. Esaten zen Gábríel Ventuza kapilau militarrek itzuli zituela uhal batez lotuta eta oilategian giltzapetu zituztela nahi zuenak ikus zitzaizkien. Nire amaordeak, Colentina Dúnkak, sinetsi ere ezin zuen egin, baina ile-apaindegian hainbat bezero zituenez eta ezin zuenez negozioa bertan behera utzi, Natalia Vidra orraztailea eta biok bidali gintuen ikertzera. Oinez hamar minutu ere ez dago isolamendu-zentroko burdin hesia dagoen ibaiertzeko larrerraino, beste zenbait kasutan ere begiluzeak ausartzen ziren lekuraino. Hara heldu ginenerako, ostera, deus ere ez zegoen ikusteko. Ez oilategirik, ezta Senkowitz

ahizparik ere. Geroago jakin genuen: gainerako gaixoek hil zituzten iheslariak harrika.

Hemen, Bogdanski Dolinan, ez da Izolda deitzen den neskato edo emakumerik: isolamendu-zentroaren izena da. Halaxe esaten zioten larre guztiari, alambre-hesiz inguratuta zegoen zelaiari ere bai; antzinatik sartzen zituzten bertan gaixoak eta bestelako jendilajea, eguzkiak eta haizeak astintzen zituzten barrakoietan. Hantxe amaitzen zen hiria; zelaitik haratago Midiako larreko zabortegeak zeuden, kaioz gainezka.

Hilabete batzuk lehenago konturatu ziren, ohiko zenbaketa baten ostean, Senkowitz ahizpak falta zirela neskazarren barrakoitik. Haien tapakiak eta lastairak zeharo hotz zeuden ordurako, eta burkoetan, agur gisa, buruen zuloak baino ez ziren ikusten. Lo itxurak egin zituzten seguruena aurreko gauean argiak itzali bezain pronto eta bideari ekin zioten lehenengo zurrunga saldoak aretotik barreiatu zirenean. Zoruko oholtza behartuta zegoen eta haren lekuan hutsune beltz eta hezea zeukan. Ahizpen arrastorik ere ez. Lurrak irentsita desagertu ziren.

SEBASTIAN Vidra geografia irakaslea honako ideia honek bizi zuen: uste zuen Medvegyica ibaia, antzina, ez zihola haraneko malda leunetatik Tisza ibairaino, eta gaur egun ere aspaldiko ubideen sare moduko bat geratzen zela kale, etxe eta patioen azpian. Inor gutxi sinesten zion, zenbait sotoren azpian lurrak burrunba egiten zuen arren. Urak eginiko eta han-hemenka Midiako la-

rrean irteten ziren ezkutuko korridore horietako batetik egin zuten ahizpek ihes zorrotz zaindutako isolamendu-zentrotik.

SENKOWITZ ahizpak emakume makalak ziren, txoroak eta ez argiegiak ere. Hala, bada, inork ez zuen uste kapaz izango zirenik halako abilezia, zuhurtasun eta disimuluan aritzeko. Urteak zeramatzaten euren ohantze azpiko lurra barrakoiko guztien aurrean zulatu eta aztarrikatzen, baina gainerako gaixoen ez zuten argi ikusten zer demonio nahi zuten. Nahiz eta barrakoiko ardura-dunak zerbaiten susmoa eduki eta eguneko gorabeherei buruzko txostenak goizero egin eta ohe azpiko zuloa gero eta sakonagoa izan, bulegoetako langileek, neska-zaharrak ondo ezagutzen baitzituzten, irribarre egiten zuten: aztarrika jarraitzea daukate ba, esaten zuten. Inori ez zitzaion burutik pasa ere egin mutxurdin haiek larrera ateratzea erabakiko zutela gau batez, lurrazpiko katagorriak balira moduan. Halaxe gertatu zen ordea. Urak eraikitako korridoreetatik irten ziren larrera, eta Tiraspoleko fraideak txakurrak hartuta ezker-eskuin bilatzen ari ziren bitartean, isasti eta ibaiertzeko sasien artean, zabortegekiko hondakin pilo baten azpian gorde ziren ahizpak lasai. Berehala galdu zen haien arrastoa miasmaz osatutako lursail hartan.

SASOI hartan Zilava artzapezpikua hirira etortzekoa zenez, hil edo bizikoa zen inguruko jendilajea atzematea, batetik bestera zebiltzan gaixo haiek batez ere; ordainsa-

ria irabaziko zuen harrapatzen zituenak. Urtebeterako errazionamendu-kupoiak agindu zizkioten ahizpak topatzen zituenari. Zorte hori zeukanak produktuen truke aldatu ahal izango zituen kupoiak –gaileta, aranpasa eta txintxorten truke batez ere–, baina eskudirua ere har zezakeen, nahi izanez gero, eta milioiak izan zitezkeen garai hartan. Gábríel Ventuzak irabazi zuen hori guztia beraz, Izoldako esparrura itzuli zituelako ahizpak goiz hartan, larruzko uhal batez lotuta.

NATALIA Vidra orraztailea eta biok isolamendu-zentroko burdin hesira heldu ginenerako, sakabanatzen ari ziren begiluze guztiak. Ikusteko gutxi zegoen: zabor meta txiki bat eta kaio asezinak haren gainean borrokan.

Dolinako jendea ez da berritsuegia ere eta gauza gutxi jakin ahal izan zen. Iheslariei, antza, zabortegiko barrunbeetatik irten berri, egundoko kiratsa zerien, oilategi barrutik ere edonora hedatzen zena. Berehala oldartu ziren kaio asegaitzak oilategira beraz; ohol fin ez eta sare metaliko arruntez eginda zegoen eraikina, eta karioek oholak kolpatu eta mokoak sartu zituzten tartetatik, eurek ere saria nahi balute bezala. Karioak uxatzeko hasi omen ziren gaixoak harriak jaurtitzen –halaxe adierazi zuten gero. Hala eta guztiz ere, ez zen han ezertxo ere geratu, ez bada zabor pilo txiki bat, asko jota hiru palakada betetzeko lain. Ez zirudien bi hildako zeudenik han; are gehiago, hildako bakar baten itxura ere ez zeukan; kea darion haragi opila besterik ez,

zarpailez, ezpalez eta txirbilez nahastuta. Eta hori bera ere gutxitzen joan zen kaioen lanari esker.

Natalia Vidrarekin batera burdin hesira heldu nintzenerako, beraz, hara eta hona zebiltzan gaixo gehienak patioan, eskuak patriketan, zeruari adi. Kanean zeuden begiluzeak ikusten zituzten, jakina, baina ez ziren burdin hesira hurbiltzen: izan ere, ez zegoen horretarako ohiturarik. Vidra irakaslea zegoen haien artean, Natalia Vidraren senarra. Begiratuko ote zigun zain geratu nintzen, baina begiak batetik bestera zerabiltzan patioan arduragabe.

–Agurtu ezazu behintzat –esan nion Natalia Vidra–, begiratuko digu beharbada.

–Zertarako –erantzun zuen–, laster bilduko gara eta.

–Akabo: askatuko dutela uste duzu, ala?

–Askatu ez, baina laster bilduko gara hala ere.

NIRE amaordearen orraztailerik gogokoena zen Natalia Vidra. Hamar urte ere baziren ile-apaindegian proba modura aprendiz hartu zuenetik eta behin eta berriro botatzen zuen kalera gero. Apetak ematen zion batzuetan eta Natalia Vidra botatzen zuen orduan, baina mezu melenga-melengak bidaltzen zizkion handik gutxira, itzultzeko kitzikatu eta proba-aldi baterako kontratatzen zuen berriro.

Vidra irakaslea Izoldako esparruan giltzapetu zuteanean, udaro erretiratzen zen Natalia Vidra Bogdanskiko goi-lautadako urkidira, hango ermitauekin babestera.

Meatzeak zeuden antzina han; izan ere, lurrak hainbeste burdina zeukan, non hodeiak ere erakartzen baitzituen. Udan tximistarik bortitzenek erabiltzen zuten toki hura, eta apenas zen inguruan zeruko gerra haien arrastorik ez zeukan mendiko bizilagunik. Tximista batek jo zuen Natalia Vidra bera ere, eta halaxe galdu zuen ile guztia; ilerik txikiena ere ez zeukan gorputzean, bilorik ere ez. Bekainak arkatzez marrazten zituen; leku desberdinetan egiten zituen goizero, eta aurpegia apur bat aldatzen zitzaion egunean-egunean modu horretan. Ezin ase emakume hari begira. Natalia Vidrak orraztea nahi izaten zuten apaizek, eta hura ikusteko baino ez ziren etortzen batzuk ile-apaindegira. Nire amaordea ere, Colentina Dunka, Natalia Vidrarekin maiteminduta zegoen.

GÁBRIEL Ventuzaren zain zeuden guztiak ile-apaindegian goiz hartan: gertatutakoa nola gertatu zen kontatzea nahi zuten. Ile-apaindegiko atzeko patioan zegoen logela batean bizi zen, alokatuta. Urte batzuk lehenago heldu zen Bogdanski Dolinara, aitaren gorpuzkinak eramateko asmoz, baina bertan geratu zen bera ere. Diru guztia galdu zuen lehenengo egunean, eta diruarekin batera dokumentu guztiak, eta nire amaordeak laguntza eman izan ez balio, karobira eramango zuten erbesterratu behar zituzten guztiekin batera edo, kasurik onenean, Izoldako esparrura, biriketako gaixoen artera. Jakina, kapilau militar modura irabazten zuen diruarekin nekez aurreztuko zuen nahikoa aitaren gorpua

lurpetik atera ahal izateko eta, hori gutxi balitz bezala, bidaia eta garraioa ordaintzeko. Orain, oster, bat-batean etorri zitzaion dirua. Ematen zuen ez zuela arazorik izango: gorpua atera behar zuten langileekin eta Tizman artximandritarekin ados jarri eta laster alde egingo zuen hiritik, merkatuan dokumentu faltsuak lortu ostean.

AURREKO egunetan inork ez zuen Bogdanski Dolinan Gábríel Ventuza ikusi. San Medárd baino astebete lehenago, baina, goizaldean agertu zen, zaborteziak ezalduen zituzten laino-errezelen artetik. Senkowitz ahizpak zekartzan, uhal batez lotuta.

–Nondik nora paseatu gara? –galdetu zuen aita Erominek, esparruko komandanteak, akta idaztera eta ahizpak ekartzeagatik Gábríel Ventuzarentzako ordainagiria idaztera eseri zenean–. Ala neuk asmatzea nahi duzu?

–Hemendik, ingurutik. Arrastoaren atzetik nenbilen aspaldi.

–Izan ere, kiratsa nazkagarria da. Eta hara itxura!

Ematen zuen Senkowitz ahizpak, gris, heze eta lur jota amiltzeko zorian, zaborrez eginda zeudela, eta ahotsak eurak ere luzatu egiten zitzaizkien, substantzia likatsua balira bezala. Hitz egiten zutenean noski... aita Erominek galdetu zien:

–Nondik hasiko gara? Hasieratik beharbada. Eta ez dut korurik nahi.

Ahizpek elkarri begiratu zioten:

–Izorratuta gaude. Ez dugu ezer esango beraz. Tutik ere ez. Kontuak atera, aita Eromin, mutu geratu gara. Ahoa ere ezin dugu zabaldu.

Haixek izan ziren, hain zuzen ere, ahizpen azken hitzak.

Aita Erominek ez zuen pazientzia galdu eta bi gizon bidali zituen etxaldeko patiora emakumeak giltzapetzeko zerbeit bila zezaten. Oilategi batekin itzuli ziren apur bat geroago.

ARRATSALDEAN itzuli zen Gábríel Ventuza ile-apaindegiko patiora. Koipeztu eta urratuta zekarren sotana, iheslarien atzetik egunak eman izan balitu bezala, ezinezko bideetatik barrena. Eta kontua da Gábríel Ventuzak berak lagundu ziela Senkowitz ahizpei zorrotz zaindutako Izoldako esparrutik ihes egiten. Mundu guztiak zekien hori Colentina Dunkaren ile-apaindegian. Eta horra orain: ordainsaria irabazteko entregatu zituen.

–Esaten zen Erevaneraino eramango zituela neskaharrak beharbada –esan zuen nire arrebaordeak, Mauzi Aniesek–. Zer gertatuko zen?

Gábríel Ventuzak lokatzez zikindutako sotana kendu, lehortzen jarri, atea barrutik trangatu eta oheratu egin zen. Ez zen arratsaldean jaiki, ezta gauean ere; zurrungek leioa dardararazi zuten hainbat egunez.

BOGDANSKI Dolinan zabortegeiak jarri zituztenetik eta hondakin mendiak iparraldeko haizeei pasatzen eragotzi arte hazi direnetik, eguerdi aldera uhertzen da

airea hirian, kiratsaren kanpai lirdingatsuak teilatuen gainean egiten du dar-dar eta kaiorik basatienak ere mutu geratzen dira. Guztia geldiarazten duen isiltasuna hedatzen da harresien gainetik eta leihoen kontra jotzen duten euliak baino ez dira entzuten. Kristalak ere zeharkatzen dituzte eta gela ilunetan barrena ibiltzen dira zartako beltzak balira moduan. Indarrrik gabe geratzen da jendea une horietan eta, geroko utzi ezin duen egitekoren bat ez badauka, etxeko txokorik ezkutuenean etzaten da kuluxka egitera. Gábríel Ventuzak bost egun zeramatzan lotan etenik gabe. San Medárd bezperaren eguerdian iratzarri nuen nik, bere bila ari baitziren Tiraspoleko fraide txakurzainak.

BIZIKLETAZ ibili ohi ziren Tiraspolekoak; euren ondoran, kate luzez loturik, ibilgailuaren koadroari eutsita, txakur adurti batzuk eramaten zituzten, mustur zabalekoak. Tiraspoleko horiek Tizman artximandritaren mutilak ziren, edozertarako balio zutenak, eta zaindarianak ere egiten zituzten kasu berezietan. Hirian izen horrekin ezagutzen zituzten: Tiraspoleko txakurzainak.

Periprava bikarioak kontratatu zituen garbiketarako egin eta sukaldean barazkiak zuritzeko, baina, bikarioak urteak zeramatzanez lotan, Tizman artximandritaren esanetara ari ziren lanean. Esaten zuten Odessako uholdeen biktimak zirela, itsaso harrotuak kanporatutako fraide koitaduak. Ezin zen, ordea, beste aukera hau ere baztertu: halako egun batez bizarra hazten utzi, gris koloreko zaku bat burutik behera jantzi eta, bizimodua

ateratzeko asmotan, bazter batetik bestera ibiltzen has-
tea. Dena dela, ez zeramaten zilizioa gerrikoan, ondo
betetako poltsa baizik, gantz minduaren usaina zeuka-
ten eta euren ilajeko kirruen artean diz-diz egiten zuten
bartzek, ezkatak edo Itsaso Beltzeko gatza balira bezala.

Haien txakurrek zaunka ere ez zekiten egiten behar
bezala eta, gizakien konpainia bilatu beharrean, hutsari
begiratzen zioten beirazkoak ziruditen begiez. Jan behar
zutenean, lorategi, oilategi eta sukaldeetan sartzen ziren
besterik gabe. Azkenaldian seminarioko erizaindegian
ere sartu eta katiluetako zopa hartzen zuten milika.
Sekula ez zuten zaunka bakar bat ere egiten; haize-zu-
rrumuru batek adierazten zuen hurbiltzen ari zirela,
hala nola euren atzazalen marruskadurak bide harrizta-
tuan. Iluntzean kaleetatik desagertu eta Prelatu-etxeke
harresien magalera biltzen ziren. Izan ere, gaua hedatu
ostean, katamotzak baino ez ziren Bogdanski Dolinako
kaleetan ibiltzen.

ARDURATU egin zen nire amaordea tiraspoldarrak izen
bako kalezuloan sartzen ari ziren unean kate-hotsak
entzun zituenean. Txakurrak hartuta sarrerarantz zuten
zetozela ikusi zuen ile-apaindegiko leihotik. Ez zien
sartzen utzi nahi. Atalasean jarri zen irmo, baina ezin
izan zuen haien kontra ezer egin; gupidarik gabe kendu
zuten erditik. Adierazi zuten kontu garrantzitsua zela
tarteko zebiltzala Gábríel Ventuzaren bila. Bazekiten
etxean zegoela, esan zuten, egiaztatu baitzuten haren
hiru gurpileko motorrak egunak zeramatzala patioan.

Horrelako furgoneta motordun bakarra zebilen Bogdanski Dolinatik. Zaratari erreparatuta ezagutzen zuten guztiek; marrantaren antza zuen, beste ezer baino gehiago. Hiria txikia zenez, harresiek oihartzuna balitz bezala itzultzen zuten zarata eta, hura entzunda, urrundik igar diezaiokeen jendeak zein kaletan zegoen. Kapilau militarren ibilgailu ofiziala zen; hura erabilia joaten zen Gábríel Ventuza Izoldako esparruko gaixoak eta karobian erbestertzeko zain zeudenak aitortzera.

Hala da: bost egun zeramatzan Gábríel Ventuzak lotan. Izoldako esparruko gaixoek, beraz, bost egun zeramatzaten euren maitasun-fardelak jaso gabe, eta baten batek bekatuak aitortu nahi izan balitu, ez zuen izango arimari norekin atsedean eman. Tiraspoleko txakurzainek Tizman artximandritaren mezua eman behar zioten, hortaz: lanpostutik ospa egin behar zuen. Hala ere, irabazitako errazionamendu-kupoiak diru truke aldatuz gero, ehorzleak, tasak eta garraioa bera ere ordaindu ahal izango zituen. Gorpua hobitik aterata zegoen, bere aitaren gorpuzkiak paketatuta, eta zama guztia biharamuneko posta-treanean abia zitekeen.

Tiraspoleko txakurzainek furgonetako giltzak eskatu zizkioten, baita kapilau militarren sotana grisa ere; haren ondoan egon ziren erantzi zuen bitartean. Behin eta berriro eta azken unera arte azpimarratu zioten ez zedila mihiluzea izan; ez zen komeni jendeak pentsatzea nahikoa zela lagunak edukitzea gorpuzkinak lortzeko; horrezaz gainera, sutsu eskatu zioten ilea eta bizarra mozteko, inork ez zezan uste apaiza zela. Joan egin

behar zuen, beraz. Biharamunean, ordu honetarako, mugaz bestaldean beharko zuen, hilkutxa eta guzti.

VIKTOR Ventuzarenak ziren ordurako paketatuta zeuden gorpuzkinak, Gábríel Ventuzaren aitarenak. Bogdanski Dolinan bizi izan zen Viktor Ventuza eta Roxana dukesaren hilerrian lurperatu zuten armeniarren artean. Ivano Frankovskera joateko asmoa zeukan oraindik ere hil baino egun batzuk lehenago –Zelofan apezpikuari kargu hartzera, erlijiosoak ederki engainatu zuen eta–, baina korronteak atzera ekarri zuen Pop Sabineko basoetatik; bide erdia eginda zeukan, baina gorpu itzuli zen hirira, urek handituta. Egunak eman zituen koitarduak itzulipurdika Bogdanskiko ontziralekuko zurrunbilo apartsuetan, harik eta mugako ehiztariek gorpua berreskuratu eta identifikatu zuten arte. Ez zen erraza izan, ilea falta baitzuen, buru-azal eta guzti, eta belarriak ere ebaki baitzizkioten. Baten batek erruki gabe erabili zuen.

Edonori gerta zekioken inguru hauetan, lagun baten amorrua pizten bazuen, esate baterako, edo bazkideak ganorarik gabe aukeratzen bazituen. Erraza zen Viktor Ventuzak etsaiak izatea, pertsona-kontrabandotan eman baitzituen hirurogeita hamar urte. Uretatik laguntzen zien bezeroei mugaz beste aldera joaten, uholdeak aprobetxatuta batez ere. Iheslariak erraz nahas zitezkeen orduan jitoan zihoazen zuhaitz eta egurrekin. Eskola zaharreko maisua, ezer ez zitzaion ezinezko iruditzen eta gai zen familia oso bat ur gaineko sustrai

bati lotu eta muga egiten zuen ibaia modu horretan zeharkatzeko.

Ur izugarri hotzek bezeroak betiko ez izozteko, Viktor Ventuzak berak igurzten zituen arto-semolaz nahastutako buztinez, gurdietarako koipez geruza lodia jartzen zien gorputz osotik gero eta bendatan biltzen zituen hurrena momiak bailiran, plastiko iragazgaitzeko poltsetan sartu baino lehen. Mugako zaindariak erosten zituen txiklea eta tabakoa emanda, hau eta hura eskainita ere bai, eta zaindarien orein adartzat jotzen zituzten sustrai distiratsu haiek, ibaian kulunkari zebiltzanak eta Viktor Ventuzaren bezeroak ezkutatzeko balio zutenak. Viktor Ventuza ur azpitan zegoen beti, eta bertatik gidatzen zuen tramankulu hura, kable misteriotsu batzuei tiraka, pareko ibaiertzearaino; ordu laurdena ere egiten zuen batzuetan uretan arnasa hartzera azaleratu arte. Dena dela, ausartenak baino ez zituen pasatzen. Beharrizana zutenei eta goi-argiak ukituei laguntzen zien, sinesgogorrei eta zalantzatiei bidaiaren asmoa kentzen zien burutik eta ezetz esaten zien besterik gabe abenturazale irribarretsuei, hirukoitza ordaindu nahi ziotenen kasuan salbu.

1920tik aurrera ari zen lanbide labain horretan, uholdeen ondorioz ibaiaren ubidea erabat aldatu zenetik. Muga-ibaia zen Medvegyica, eta halako gau batez, euri sarrien ostean, ez zituen dikeak orro eta burrunba

artean hautsi, ezpada isilean eta azpikeriaz¹. Hortik aurrera ez zuen hiria iparretik inguratu, hegoaldeetik baizik. Horrezaz gainera, paisaiaren gainean zebilen kirats sarkorra zen izugarriren bat gertatu zen seinale, gainezka egin zuten komun-ontzi guztiak zirela eta. Piztien ahoa bezain iluna izan zen gau bateko ordu eskasetan, biztanleak lo zeuden bitartean, Bogdanski Dolina kontrako ibaiertzera aldatu zen. Beste herrialde batera.

ORDUZ geroztik, eta hirurogei urtez, ameslari guztiei eman zien laguntza Viktor Ventuzak aurreko ibaiertzera pasa zitezten. Eta bere lanbideko milaka ezkutaleku zikinetan zoko-miran ez ibiltzeko, semeak eurak ere ateratzen zituen isilpean, jaio eta egun gutxira.

Gábríel Ventuza, esate baterako, alokatutako ama batek hezi zuen, jasmin eta izpiliku irla batean, Behe Danubio urrunean. Ez zuen aita berriz ikusi. Bogdanski Dolinari buruz ere ez zuen gehiegi jakin, harik eta Hamza anaiordeak jakinarazi zion arte: bertako hilerri armeniarra husteko asmoa zeukaten Dolinakoek, eta euren aita, pertsona-kontrabandista, bertan zegoen ehortzita.

Ilusioz gainezka heldu zen Bogdanski Dolinara, baina galtzontziloak baino ez zituen soinean nire amaor-

¹ Sándor Petőfi (1823-1849) poetaren olerki bati egiten dio erreferentzia esaldi honek (“A Tisza”). Egokia ematen du mugen joan-etorriari buruz ari den pasartean egitea Bodorrek aipamena; izan ere, Petőfi bera Hungariako independentziaren aldeko gudan hil zuten Segesvár izeneko batailan (Sighișoara gaur egun, Errumania).

deak errukiz hartu zuenean. Jantzi egin zuen Colentina Dunkak, diru-sarrera urri batzuk irabazteko bidea lortu eta ostatua ere eman zion, buruari non eutsi izan zezan. Logela txiki bat utzi zion ile-apaindegiko atzeko patioan, lasai bizi ahal izateko. Azkenean, diru-sariari behar zena kenduta, gorpua hobitik atera zuten langileentzat eta garraiolariantzat baitzen ia osorik, zentimorik gabe geratu zen berriro.

Tiraspoleko txakurzainek sotana hartuta alde egin zutenean, galtzontzilo hutsetan geratu zen nora ezean ile-apaindegiko patioan. Orraztaileetako batek ere astirik ez zeukanez, Gábríel Ventuzak berak ebaki zuen ilea eta berdindu zuen bizarra artazi kamutsez leihoko kristalari begira. Nire amaordeak Mauzi Anies orraztailearekin bidali zion mezua: goi mailako aretoa zela hura, apaizek ikus zezaketela leihotik eta jantz zezala zerbait behingoz.

–Ze demonio janztea nahi du? –lehertu zen–. Ondo asko daki Colentina Dunkak ez daukadala arroparik. Gizon horiek eraman dutena baino ez neukan.

–Ez duzu jakingo beharbada, baina arropa mailegatzen duen zerbitzu bat bada hemendik gertu. Kaleko traje dotoreak alokatu ahal dituzu bertan, prezio onean. Dirua badaukazu: hurbildu eta aukeratu.

Colentina Dunka bera zen Mauzi Anies gomendatzen ari zen zerbitzuaren jabea; atoi batean zegoen negozioa, Ibiltari Ezezagunaren hilobiaren ondoan. Nik neuk gobernatu izan nuen denda hasieratik bertatik. Asteburuetan baino ez zegoen zabalik, hiria artzapezpikuaren zain zegoenean eta kaleak begiluzez betetzen

zirenean. Nekazari gazteak ziren batez ere, jantzi higatu eta korta zein erretxina usainarekin, eta euren itxurak lotsarazten bazituen, kaleko trajeak alokatzen zituzten ordubete edo ordu pare baterako, nahiago baitzuten besteen aurrean horrela agertu. Honakoa zen eskaintza bereziki: oihal gris ilunezko trajeak, latorrizko botoidunak; nahi izanez gero, galtzerdiak eta txarolezko zapatak ere har zitezkeen. Horrezaz gain, baziren alokatzeko: lihozko prakak, larru sintetikoazko jakak, gorbatak, kapeluak eta xalak.

Mailegu-zerbitzua zegoen plazara joan nintzen, Gábrriel Ventuzarentzako prakak eta jaka aukeratu eta logelara eraman nizkion.

–Zurekin apur bat maiteminduta dago nire arreba-ordea –esan nion–. Horregatik hartu zaitu hain estu: min hartuko du alde egiten baduzu.

–Neuri ere gogora etortzen zait neska batzuetan –erantzun zuen.

–Baina esadazu: esaten zen mugaz bestaldera eramango zenituela bi munstro haiek. Ondo ulertu banuen, diru-aurrerapen bat ere jaso zenuen. Eta zer da kontua? Atzera ekarri dituzu orain.

–Bai, hara, hala egokitu zen.

–Oztopo astunen bat gertatuko zen haiek ez eramateko. Edo, beharbada, txarto prestatuta egongo zen guztia.

–Ez, ez, primeran zegoen prestatuta. Baina akabo, halaxe joan da kontua.

SAN Medárd bezpera jai zen Bogdanski Dolinan. Dendak itxita zeuden arratsaldean. Nire amaordearen ile-apaindegia baino ez zegoen zabalik; gaueko mezarako bizarra orraztu nahi zuten pope apurrak artatu beharra zegoen.

Emakumeak masustondoaren azpian ari ziren bezeroak orrazten. Arratsaldeko azken ordurako, giroan baziren hari luze eta urreztatu batzuk, amaraunen antza zutenak. San Medárd hodeiek ibarra inguratuta zeukaten ordurako, apenas zebilen haizerik eta zeruan planeatzen ari ziren kaioak, ia geldirik, malutak balira bezala. Bi pope baino ez ziren dendan geratzen, Mauzi Anies eta Natalia Vidraren zain, hurrenez hurren, nire amaordea sartu zenean Gábríel Ventuza atzetik zuela.

–Emadazu xaboia. Ilea garbitu nahi nuke.

–Baina, ze haizek jo zaitu bat-batean?

–Zita daukat. Atzazalak ere moztu nahi nituzke.

Atzeko patiotik auzo baten ortura pasa zitekeen atexka batetik. Euria biltzeko upel erraldoi bat zegoen bertan, ortua ureztatzeko urez beteta. Behin baino gehiagotan murgildu izan zen Gábríel Ventuza bertan. Lehortzeko astirik ere ez zion gorputzari eman, arropa jantzi eta irteerarantz egin zuen. Leihotik egin zion Colentina Dunkak oihu:

–Bost egun eman dituzu lotan, arraioa. Esango didazu zer gertatu den?

–Ezer ere ez –erantzun zuen Gábríel Ventuzak–. Hala egokitu zen kontua eta kito.

–Baina, nola bururatu zitzaizun halako gauza bat?

–Horixe bera. Boga Senkowitzek atzera egin zuen.

Azken hori esan eta joan egin zen. Sasoi batean, esparrura aitorle-lanetan astean hirutan joaten zenetan, bi minutu baino ez zituen behar hiru gurpileko motorrean, bideak zuloz beteta egon arren; orain, oster, pasabideen bide-zidorra hartu behar izan zuen, harri-jaurtitzailak baino lehenago heltzeko. Isolamendu-esparruko burdin hesiaren ondoan jartzen ziren iluntzean harri-jaurtitzailak eta zaila zen orduan atera hurbiltzea. Apaizgaiak ziren; ibaiertzeko harriz betetzen zituzten zorroak eta burdin hesiaren ondora biltzen ziren gero, patiotik paseatzen ari ziren gaixoak harrikatzeko asmoz. Kanean zeudenean, ez zen gomendagarria bertatik ibiltzea.

Tiraspoleko txakurzainek zaintzen zuten esparrua; Gábríel Ventuzari atariraino baino ez zioten pasatzen utzi oraingoan. Denbora behar izan zuten ezagutzeko, kale-jantzian baitzetorren, ile labur eta bizar berdinduarekin, baina hala ere ez zeukaten esparrura sartzen uzteko asmorik. Adierazi zienean Sebastian Vidra geografia irakaslearekin hizketaldi labur bat baino ez zuela egin nahi, gogo txarrez onartu zuten; ondo da, deituko zioten behingoagatik. Azken batean, egun batzuk lehenago iheslariak ekarri zituen pertsona zen, gero kalera bota bazuten ere. Bost minutu eman zizkioten atariaren ondoko bankuan hitz egin zezaten.

–Kontuak atera, aita entregatu didate –esan zuen Gábríel Ventuzak elkarren ondoan eseri zirenean–. Ez zaitut kontu horrekin aspertu nahi, baina bihar alde egingo dut eta zure baimena nahiko nuke zure emaztea nirekin eramateko. Badakit pertsona ulerkorra zarela.

–Hara. Ez nekien elkar maite zenutenik.

–Ez, ez. Oraingoz ez da halakorik. Ez diogu elkarri sentimenduz tutik ere esan.

–Hala bada, ze arraio nahi duzu harekin?

–Nirekin etortzea. Neska ona dela ematen du eta, nolana ere, zuk ez duzu berriz ikusiko. Sentsazio onak izaten ditut nire inguruan urrats txikiz bira-biraka dabilenean.

–Labur esateko: hona agertu eta emaztearen eskua eskatu didazu tupustean. Hausnartzeko astia behar dut, gizona. Beharbada ez duzu jakingo, baina emaztea legegak behartuta bizi da bertan; hau da, ezin du baimenik gabe barrutitik alde egin. Nola atera nahi duzu?

–Hilkutxa txiki batean. Gorpua atera zutenei bi eskatu nizkien, hutsik bigarrena. Airea sartzeko zuloak ditu hilkutxak, egun batzuk egin daitezke eroso asko haren barruan. Ni bila joan eta askatu arte eutsiko dio nolana ere. Beilatokian, esan nahi dut. Ez kezkatu, ederto batean prestatu dut.

–Bihar erantzungo dizut.

–Sentitzen dut, baina ez dago astirik. Bihar goizean irteteko naiz. Gogoan izan ez zarela luzaro bizi izango. Hamar dolar emango dizkizut trukean, errazionamendu-kupoietan. Hariton Manukiani emango dizkiot, berak zainduko zaitu. Gazta freskoa, gailetak, aranpasak eta bestelako gozokiak helaraziko dizkizu.

–Eskerrik asko. Estimatzen dut zure eskuzabalatasuna, gizona. Baina ulertuko duzu apur bat nahastuta ere banagoela. Tira, zer esango dizut nik; eraman ezazu

emakumea, hainbeste behar baduzu. Eta mila esker gure alde egin duzun guztiagatik.

BOGDANSKI Dolinan kapilau militar lanean aritu eta Izoldako esparrukoak aitortzera astean hirutan joaten zenetan, kontrabandoan sartzen zuen beti, sotanapean, Vidra irakaslearentzako medizina-ontzi txiki bat, tapoiarekin kontu handiz estalia. Natalia Vidraren listuz bustitako trapu txiki bat baino ez zeukan ontziak barruan. Galtzontziloetan gordetzen zuen; zaindarien ez atzemateko batetik, eta epel egon zedin bestetik, gorputzaren tenperaturari eutsiz. Barruan, aitorlekuaren ilunpean, Sebastian Vidrak ontziari tapoia kendu, trappua miazkatu eta atzera bidaltzen zion Natalia Vidrari, senarraren listuaz orain. Denbora asko zen elkarrengandik oso aparte bizi zirenetik, baina Gábríel Ventuzak izterondoaren epeletan hara eta hona ibiltzen zuen listuak elkartuta eduki zituen hainbat urtetan.

ILE-APAINDEGIA itxi ondoren, patioa erratzaz garbitzera bidali gintuen Natalia Vidra eta biak Colentina Dunkak, hurrengo eguneko festan egoki egon zedin. Orraztean jausi ohi diren ile eta bizar ugariak harilkatu eta hesiaren azpitik irteten dira normalean, korronteak bultzatuta, izen bako kalezuloetik seminaria bidean. San Medárd larunbatean, ordea, ez zen haize arrastorik eta, kaioak balira legez, plastiko zatiek baino ez zuten hegan egiten zeruan, hodeien azpian. Mauzi Aniesekin zegoen nire amaordea, logelako ohe-jantziak aldatzen.

Gábríel Ventuza kale ertzean agertu eta etxera hurre-
ratzen ikusi zutenean, ukondoak leihoan jarri zituzten
Natalia Vidrari esango ziona aditzeko.

–Zure senarra ikustera joan naiz –hasi zen Gábríel
Ventuza–. Zutaz hitz egin dugu. Esan du eguratsa gero
eta okerrago dagoela eta ez lukeela zu gaixotzea nahi.

–Ez dago okerrago, aita, inondik inora ere.

–Bota egin naute; ez deitu niri, beraz, aita. Bihar
goizean alde egingo dut eta zure senarrak zu nirekin
etortzea nahiko luke. Sendabelar-denda jarri nahi dut
eta ile-apaindegi batean egin zenezake zuk lan. Bitsetan
egongo ginатеke.

–Lehendik ere orrazten dut nik hemen, aita. Gai-
nera, une txarrean heldu da eskaintza. Ez dakit atzo
edo herenegun izan zen, baina kontua da Colentina
Dunka andreri hitz eman niola elkarrekin bizitzen
hasiko ginela. Haren logelan hartzeko mesedea egin
dit. Ohe-jantzi berriak ere jarri ditu, asko maite bainau
ile-apaintzaile andreak.

–Traba txiki bat, jakina. Bego, ahaztu, hitz-erdirik
ere esan ez banizu bezala. Tximistak kiskali zintuenetik
arraina jaten hasi zara, beraz.

–Ez naiz aluzalea, aita, inondik inora. Baina Colen-
tina Dunkak bihotzez agindu zidan elkarrekin bi edo
hiru hilabete ematen bagenituen, isolamendu-zentro-
an gaixo moduan sar nazaten lortuko zuela, Izoldako
esparruan. Senarrarekin egon ahal izango naiz modu
horretan, Vidra irakaslearekin.

ILUNTZEN ari zuen, San Medárdeko tximistargiak dir-dir egiten ari ziren ordurako mendikateen gainean geldituta hodeietan, Colentina Dunka txirrinez niri deika ari zela entzun nuenean. Ura, menda-tea edo intsusaxarabea ohera eramatea nahi zuenean deitzen zidan. Orduan, baina, leiho irekiaren ondoan zegoen. Haren sorbalda biluzi eta biribilduak distira egiten zuen logelaren ilunpean, ilargi-erdi txikia balitz bezala. Lurrinak berak ere harritu ninduen; izan ere, emakume-gorputzen ohiko legamia-usaina Bogdanskiko goi-lautadako urkien usainarekin nahasten zen.

–Ez dut tutik ere ulertzen. Joan zaitez Gábríel Ventuzarengana eta galdetu zer-nolako aitzakia jarri zuen Boga Senkowitzek atzera egiteko. Ez dezala alde egin esan gabe.

GÁBRÍEL Ventuza Hariton Manukianen ostatuan ari zen edaten. Bezeroak aberatsak ziren, ezer baziren; diru-trukatzailleak eta zabor-kamioietako gidariak biltzen ziren hara. Ez zutenez hiriko eguratsa jasaten, zapia sudurrean edaten zituzten beti edari gogorrak. Gábríel Ventuzaren aurrean anis pattar botila zegoen; ura botata lausotu egiten zen edaria, eta ematen zuen lanbroz lurruntzen zituela edalontziaren paretak.

–Jakin nahi baduzue –esan zuen–, prestatu nuen bezala gertatu zen dena. Boga Senkowitz Erevanetik etorri zen arreben bila eta hitz emandako lekuan egon zen nire zain. Baina ez zuen emakumeen ardura hartu. Haien itxura ikusi zuen aurrena. Hurrena, haien kiratsa

usaindu zuen, zapia sudurrean bazeukan ere. Esan zuen ez zituela nahi. Egin nezala haiekin nahi nuena. Atzera ekarri nituen, beraz. Dirua ez eskuratzeko puntuan ere egon nintzen.

HAREN ondoan eserita nengoen bitartean, birritan irten zen. Patioan barrena komunera zihoala ikusi ahal izan genuen leihotik ateratzen zen argiari esker. Hariton Manukianek galdetu zion itzuli zenean:

–Maiz ari zara komunera joaten. Sabela izorratu zaizu, ala?

–Ez, txiza egitera baino ez naiz joaten. Apur bat urduri egongo naiz ziurrenik; bidaia, badakizu.

–Kontuz ibili bihar artean behintzat.

–Geratzen zaidan dirua utziko dizut. Bihar, goizean goiz, eraman errepidera eta jarri teilatupeko putzuaren ondoan, harri baten azpian. Ipini harri gainean ziabelar edo intsusa-lore sorta txiki bat, topa dezadan gero. Goizeko posta-treanean joango dira hilkutzak, eta eguerdira arte ez naiz abiatuko ni, bidaiarientzako trenean. Bidaia egiteko diru apur bat behar izango dut.

BUELTAKO bidea hartu nuenean, Hariton Manukianekin hitz egiten jarraitzen zuen salmahaiaren ondoan. Ile-apaindegiko patioan isiltasuna baino ez zen eta ez zegoen piztutako argirik. Isil-gordeka sartu nintzen arrebaoordearekin partekatzen nuen logelan; hala ere, gelako aireak ni ukitu ez beste, jakin nuen hutsik zegoela. Gela eta, jakina, Mauzi Aniesen ohea. Patioan

batetik bestera ibili nintzen, baina ez nuen haren arrastorik topatu. Askozaz geroago, oster, neskaren ahotsa entzun nuen, ordurako San Medárdeko tximistargiak inguruan distira egiten ari zirenean, lehenengo tanta lodiek teilatu-hodien gainean atabala jo eta Gábríel Ventuza ostatutik etxera heldu zenean.

–Ez zintudan izutu nahi. Pentsatu dut, baina, euria hasi baino lehen, ohea berotu behar nizula.

–Beraz, oker ez banago, elkarren jabe izango gara gaur gauetz.

HIRIRA zuzen zetorrelako itxura eduki zuen ekaitzak luzaro, baina, hondakin pilek desbideratu izan balute bezala, ontziralekutik hurbil gelditu eta ekialdera egin zuen. Tanta batzuk ere bota zituen berriz eguna sortzean. Gábríel Ventuzaren atea zabalik zegoen.

Orduantxe hasi ziren janzten, hain zuzen ere. Elkarri miazka eta hozka eman zuten gau osoa, antza: egun-sentiko argiek mila koloretan egiten zuten distira haren azalaren eta listuak sortutako ezkata ordurako idortuen gainean.

–Leku bat daukat libre –esan zion Gábríel Ventuzak Mauzi Aniesi–. Hala nahi izatera, nirekin etor zaitezke.